

Ezpalak

JON TORNER

Tom Sharpe eta 'Forges', Bilboko Umorezko Literaturaren Astean



BILBOREN IRRIA Umorezko Literaturaren eta Umore Grafikoaren jaialdia egingo dute Bilbon, irailaren 22tik 26ra. Bost egunetan, hitzaldiak, mahai-inguruak, liburu azoka, erakusketak eta ikuskizunak izango dira. Lehenengo edizio honetan, Tom Sharpe idazle ingelesa saritu eta Antonio Fraguas de Pablo 'Forges' umorezko marrazkilari espainiarra omenduko dute.

Jai herrikoien alde



WWW.IZANPIRATA.INFO

EUSKAL HERRIKO jai batzordeek jai herrikoien sarea sortzeko lehen urratsa eman dute. *Bultzatu* izeneko manifestua sinatu dute dozenaka kultur eragile eta elkartek. Jai herrikoiak auzo, herri eta hirietako elkarbizitzaren parte direla aldarrikatu dute. Euren iritziz jai eredu horrek "erasoak", "debekuak" eta "murrizketak" jasaten ditu eta hori salatzeko "jaiei planto egitea" ere ez dute baztertu. *Bultzatu* manifestua eta bildutako atxikimenduak: www.bilbokokonpartsak.com.

100x100 komiki izeneko erakusketa izango da ikusgai abuztuaren 20ra bitartean Bilboko Alondegan. 50 komikigilek, beste hainbeste autore ezagunek egindako marrazkien bertsio bereziak bildu dituzte erakusketa horretan. Bi marrazki egin ditu bakoitzak. Tartean dira hainbat komikigile euskaldun: Raquel Alzatek Lewis Trondheimen marrazkien bertsioak egin ditu, Santi Oruek Francisco Ibañezenak, Javier Isusik Milo Manararenak, Ernesto Murillok Frank Robbinsenak eta Mikel Valverde Jacques Tardirenak.

Surfin Kaos

Donostiako rock & roll taldeak *Goi-zalde surrealistikak* laugarren lana kaleratu du Brian's Records etxearekin. Diskoa Egia auzoko Le Bukowskin grabatu dute. Bestalde, kalean da Show Business talde oñatiarraren lan berria ere: *Pozoin dutako hitzak* (Wilboard Records).



MAKOKI GROUPS (WWW.FLICKR.COM)

DFeria Donostiako antzerki eta dantza jaialdia ekainaren 22tik 24ra egingo da. Iaz baino zortzi ikuskizun gutxiago eta aurrekontu erdia izango ditu ekimenak. Guztira, hamabost lan eskainiko dituzte, denak euskaldunek edo Euskal Herrian eginak, hala nola, *Magnifique*, *Intxaur-hauskailua*, *Loti ederra* eta *La mujer justa* dantza obrak, eta *Kapzuloa*, *Otto*, *Aitarekin bidaiari*, *Arrastoa* eta *Goibel* antzezlanak. Egitarau osoa: www.antzerki.com.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

euskarazko

web guneei

dirulaguntzak

BALDINTZAK

Publiko zabalari zuzendua behar du web guneak • Zergak Tolosan pagatzea • Edukiak oso-osorik euskaraz (ere) izatea

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA
2010eko **ekainak 30**

TOLOSAKO UDALA

INFORMAZIO GEHIAGO
943 69 74 53 edota
euskara@tolosakoudala.net